

## Laranja



**H**iru bat urte izango dira Tourmaleteko La Mongiera iritsi nintzela txirrindulari euskaldunek tontor hura nola igarotzen zuten ikustera. Iritsi eta hurrengo egunean opari gisa eskainitako elastiko batzuei esker goi hura laranja margotu zen. Bat-batean denak Euskaltelekoak ginela zirudien. Halako

itxura ematen baitzuten kolorezko kamisetak haiek...

Bada, hemen, Madrilen ez dago tontorrik. Nik dakidala, behintzat, ez da Frantziako Tourra iritsi ere. Baina, lau egunez Donostiako 60 gaztek hiri handi eta ikaragarri hau laranja kolorez margotu dugu, lepoan jarritako zapiari esker; guztia izan ez arren, puska bat behintzat.

San Bizenteko eta Santa Maria parrokiako Xirimiri gazte taldea bisitan etorri zen aurreko astean Madrilerako lelo hau jorratu nahian: *ezagutuz, errespetatu*.

Bazterrak ikusi ditugu, hiri handian txiki sentitu gara galtzeko beldurrez, hiri kosmopolita honek zenbat kolore eta soinuz izugarri dituen ezagutzean. Eta gazteek ez zuten zapi laranja uzten inola ere...! Hura baitzen elkar ezagutzeko ezaugarria: laranja.

Jendeak oso ondo hartu gaitu. Madrilen igandero euskaraz meza ematen den San Inazio elizako beheko lokaletan lo egin dugu hiru gauetz. Hemengo gauak desberdinak dira: atsedetik hartzen ez duen hiria baita Madril. Beti, etengabe, lanean ari da eta, batek buka-

tzen duenean, besteak hartzen du txanda. Metroko geltokiak jendea irentsi egiten du beste zulo batetik askatu arte. Tuntuak eta autoen zaratak ez direla amaituko baitirudite.

Baina, beti, itxurazko zarata eta anonimatu horretan, hiriaren giza larrua ageri da. Eta Xirimiriko gazteak horretara joan dira: elkar errespetatzeko ezinbesteko baldintza elkar ezagutzea delako. Nola, bestela, konpondu nor garen jakin gabe? Nola bestearen beharrei erantzun zer nahi edo behar duen ezagutu gabe? Ezberdintasunak zailtasunak eta beldurra sortzen ditu guregan: desberdina dena onartu eta errespetatu. Baina, aurrera egin ezker, zalantzarik gabe, gizakiagoak izango gara.